

KANBO HERRIA

Pirinio Atlantikoetako departamendua

ERABAKIEN AKTA

2020ko AZAROAREN 7ko BILKURA

Bi mila eta hogeiko azaroaren zazpigarren egunean biltzera deiturik, herriko biltzarra Christian DEVÈZE, jaun auzapezaren lehendakaritza pean bildu da "l'Aiglon" zineman. Biltzarra goizeko 10etan hasi da.

Hor ziren: Christian Devèze auzapeza, Eliane Aizpuru, Jean-Noël Magis, Yolande Huguenard, Didier Irastorza, Marie Aristizabal, Robert Poulou, Christiane Hargain-Despéries, Vincent Goytino, ordeak, Véronique Cadepond-Larronde, Peio Etcheleku, Corinne Othatceguy, Jean-Paul Eyherachar, Nicole Amestoy, Isabelle Ayerbe, Jean-François Lacosta, Maud Gastigard, Roger Barbier, Bernadette Remeau, Sébastien Carre, Argitxu Hiriart-Urruty, Philippe Bacardatz, Nathalie Aïçaguerre, Jean-Paul Alaman, Amaia Beyrie, Michel Duthilleul, Lilian Hirigoyen, herri kontseilariak.

Ezin etorriak: Jean-Jacques Lassus eta Carmen Gonzalez herri kontseilariak.

Ahalordeak: Jean-Jacques Lassus-ek Yolande Huguenard-i.

Frantzian gertatu diren azken atentatuak direla-eta, besteak beste Conflans Ste Honorine herrian gertatua iragan urriaren 16an, zeinean Samuel PATY-k bizia galdu duen; Niza hirian gertatua iragan urriaren 29an, zeinean Vincent LOQUÈS, Simone BARRETO SILVA eta Nadine DEVILLERS herritarrek bizi galdu duten; baita ere Austriako Viena hirian gertatua, iragan azaroaren 2an, zeinean bi gizon eta bi emazte hil diren, auzapez jaunak minutu bateko isilaldia egitea proposatu du.

– Gai bat solasgaietan gehitzea (Auzapezak aurkezturik).

Auzapez jaunak biltzarkideei proposatu die Kanboko erdiguneko eta hurbileko merkatarien aldeko emendakin bat solasgaietan gehitzea.

Aho batez onartua.

Ondorioz, gai honek 49. zenbakia izanen du.

– Saioko idazkariaren izendapena.

Biltzarkideek aho batez, Jean-Paul Eyherachar hautatu dute saioko idazkari izateko.

– Iragan biltzarraren aktaren onarpena (Auzapezak aurkeztua).

Herri Biltzarkideei proposatu die 2020ko uztailaren 16ko Herri Biltzarraren akta onartzea.

Aho batez onartua.

38 – Euskal Hirigune Elkargoa: Karga Transferituen Ebaluaketarako Tokiko Komisionarako (CLECT) herriko ordezkarien izendapena (Auzapezak aurkeztua).

Euskal Hirigune Elkargoko CLECT 2017an sortu zen Frantziako Zerga Kode Orokorreko 1609 nonies C IV artikulua araberara. Batzorde horren xedea da Euskal Elkargoaren eta bere kide diren herrien arteko eskumen transferentziei loturiko kargen ebaluazioa egitea. Batzordea agintaldi bakoitzean berritu behar da. 2017koari segituz, Euskal Elkargoak herri bakoitzeko titular bat eta ordezkari bat izendatzea erabaki du.

Herri biltzarkideei proposatu die Auzapeza, titular gisa, eta Eliane Aizpuru finantza ordea, ordezkari gisa, izendatzea.

Aho batez onartua.

39 – Arkitektura eta Ondarea Balioan Ezartzeko Tokiko batzordea (CLAVAP): herriko hautetsien izendapena (Magis jaunak aurkeztua).

2014ko uztailaren 21eko erabaki batekin, Kanbo herriak Arkitektura eta Ondarearen Balioztatzeko Eremu (AOBE/AVAP) baten osatzeko prozedura abiatu zuen eta 2015eko uztailaren 20ko delibero batekin, Kanbo herriak AOBEn tokiko batzordearen kideak izendatu zituen, une hartan indarrean zen frantses Ondare Kodeko L 642-5 artikulua araberara.

2017ko urtarrilaren 1az geroztik, Euskal Elkargoak du ondarearen planifikazio eskumena. Hori dela eta, Euskal Elkargoak herriak abiatu zuen AOBEn baten aztertze eta sortze prozedura bere gain hartu du.

Frantziako LCAP (Liberté de la Création à l'Architecture et au Patrimoine) 2016ko uztailaren 7ko legeko 114 II artikulua araberara, legea argitaratu baino lehen bideratuak ziren AOBEn proiektuak lehengo Ondare Kodearen araberara aztertuko dira, LCAP legearen aitzineko balditzetan. Ondorioz, gure herriko CLAVAP horren forma atxikiko dugu baina bere osaketa eguneratu behar dugu.

Herri biltzarrari proposatu dio CLAVAP batzordeko kideen zerrenda honela eguneratzea:

Herri hautetsiak: Christian DEVEZE, Jean-Noël MAGIS, Jean-Paul EYHERACHAR, Robert POULOU, Christiane HARGAIN-DESPERIES, Jean-Paul ALAMAN.

Elkargoko hautetsiak: Bruno CARRERE (Elkargoak izendatua) Eliane AIZPURU, Peio ETCHALEKU.

Ondarean adituak: Christian PERRET, Anne-Marie PONTACQ.

Bertako ekonomia interesan adituak: Marcel NOBLIA, Christophe PUYODEBAT.

Aho batez onartua.

40 - SDEPA: RD 10 Ursuia etorbideko eta Paskaleku bideko TB (Tentsio Baxuko) sareen lurperatzea (Magis jaunak aurkeztua).

Magis jaunak adierazi du « Syndical Esthétique » (herri urbanoak) 2019 programaren baitan, Herriak Syndicat d’Energie des Pyrénées-Atlantiques (SDEPA) partzuergoari galdegin diola Ursuia etorbidean eta Paskaleku bidean TB sareen lurperatzeko ikerketa baten egitea.

Herri Biltzarrari eskatu dio gastuen zenbatekoa onartzea eta lanen diruztatzea bozkatzea.

Lanen zenbatekoa ZB	110 527,10 €
Kontzesiodunaren partehartzea (Enedis).....	35 524,95 €
SDEPAren partehartzea.....	35 524,95 €
SDEPA bere gain hartzen duen BEZ	17 693,48 €
Herriaren partehartzea	17 762,48 €
Herriaren partehartzea kudeaketa gastuetan	4 021,24 €

Aho batez onartua.

41 – SDEPA : Ursuia etorbidean eta Paskalekuko bidean TB sareen lurperatzeari loturiko argiteria publikoa (Magis jaunak aurkeztua).

Magis jaunak adierazi du Landa Eremuen elektrifikaziorako « rénovation EP (Département) 2020 » programaren baitan, Herriak Syndicat d’Energie des Pyrénées-Atlantiques (SDEPA) partzuergoari galdegin diola Ursuia etorbidean eta Paskaleku bidean TB sareen lurperatzeko lanei loturiko argiteria publikoarentzako ikerketa baten egitea.

Herri Biltzarrari eskatu dio gastuen zenbatekoa onartzea eta lanen diruztatzea bozkatzea.

Lanen zenbatekoa ZB	58 014,89 €
SDEPA eta Pirinio Atlantikoetako Departamenduaren partehartzea.....	6 000,00 €
F.C.T.V.A.....	9 169,44 €
Herriaren partehartzea	40 728,12 €
Herriaren partehartzea kudeaketa gastuetan.....	2 117,33 €

Gehiengoz onartua.

Bozkan parte hartu ez dutenak: Argitxu Hiriart-Urruty, Philippe Bacardatz, Nathalie Aïçaguerre, Jean-Paul Alaman, Amaia Beyrie, Michel Duthilleul, Lilian Hirigoyen.

42 – Euskal Elkargoa: Europako Inbertsio Bankuaren ELENA programaren baitako lankidetzaren hitzarmena (Goytino jaunak aurkeztua).

Goytino jaunak jakitera eman du Euskal Elkargoko Lehendakariak Kanboko Auzapezari proposatu diola gure herria Euskal Elkargoaren hautagaitzako kide izatea, Europako Inbertsio Bankuaren ELENA mekanismorako.

ELENA mekanismoak inbertsioetarako laguntza teknikoa eskaintzen du eraikinen energia eraginkortasunaren eta energia berriztagarrien alde.

2020ko irailaren 24ko email bidez, herriak ELENA mekanismorako hautagaitza egin zuen, Euskal Elkargoaren koordinazioarekin, «Ipar Euskal Herriako ondare publikoaren energia berriztatzea eta karbono neutraltasunaren aldeko energia berriztagarrien garapena» deitu proiektuarentzat.

Herri biltzarrari proposatu dio azalpen ohar sintetikoan erantsia den Euskal Elkargoarekiko lankidetzaren baldintzen onartzea eta auzapezari horretarako urraspide guztien egiteko baimena ematea.

Aho batez onartua.

43 – Turismo Bulegoa: dirulaguntza aurrerapena (Aizpuru andereak aurkeztua).

Aizpuru andereak jakitera eman du 2020ko urriaren 28ko gutun bidez, Kanboko Turismo Bulegoak 2020ko dirulaguntzaren 50 000 €ko bigarren zati baten ematea eskatzen duela.

Eragiketa honela egingen da:

6574 artikulutik kentzea: 50 000 €

7062 artikuluko kredituan sartzeko: 50 000 €

Herri Biltzarrari proposatu dio zenbateko horren ematearen alde bozkatzea.

Aho batez onartua.

44 – Langileria: enplegu sortzea (Auzapezak aurkeztua).

Lan-postuen eta eginkizunen bilakaera kontuan hartuz, Herri Biltzarrari eskatu dio, 2020ko abenduaren 1etik goiti, denbora osoko 2. klaseko animazio laguntzaile nagusi postu iraunkor baten sortzearen alde bozkatzea.

Aho batez onartua.

45 – Langileria: elkartasun eguna (Auzapezak aurkeztua).

Auzapezak jakitera eman du, Frantziako 2004ko ekainaren 30eko 2004-626 legearen arabera, zeinak adinekoen eta elbarrituen autonomiaren aldeko elkartasun eguna aipatzen duen, hainbat aukera badirela egun horren betetzeko.

Herri biltzarkideei proposatu die egun horren kontuan hartzeko baldintzak honela onartzea:

- Elkartasun eguna, araudien arabera, ARTT egun baten gainean egingen da,
- edo ordu gehigarrietan hartuko,
- eta halakori ez bada, langileak urtean zazpi lan oren gehiago egingen ditu.

Aho batez onartua.

46 – Langileria: langileen taula (Auzapezak aurkeztua).

Herri Biltzarrari eskatu zaio 2020ko urriaren 31ko langile kopuruen taula onartzea azalpen ohar sintetikoan aurkeztu bezala.

Aho batez onartua.

47 – Liztor asiarraren kontrako borroka: herriaren diru partehartzea (Auzapezak aurkeztua).

Biltzarkideei proposatu die herriak liztor asiarrak suntsitzeko gastuak bere gain hartzeko neurria luzatzea, interbentzio bakoitzeko 100 €ko gain-muga batekin, 2021ko irailaren 30a arte. Laguntza eskuratu nahi dutenek baimendua den enpresa baten faktura aurkeztu beharko dute.

Aho batez onartua.

48 – Herri Biltzarraren barne araudia (Auzapezak aurkeztua).

Auzapezak jakitera eman du 2020ko urtarrilaren 1ean Kanboko legezko biztanleria 6 660 biztanlekoa dela. Hori dela-eta, Herri biltzarraren funtzionamendu ona bermatzeko barne araudi baten beharretan dela azaldu du.

Herriko Biltzarrari eskatzen dio biltzarkide guztiei igorri azalpen ohar sintetikoan aurkeztua den barne araudia onartzea.

Gehiengoz onartua.

Kontra bozkatu dutenak: Argitxu Hiriart-Urruty, Philippe Bacardatz, Nathalie Aïçaguerre, Jean-Paul Alaman, Amaia Beyrie, Michel Duthilleul, Lilian Hirigoyen.

49- Kanboko erdiguneko eta hurbileko merkatarien aldeko emendakina (Auzapezak aurkeztua)

Erdiguneko eta hurbileko merkatariak, bereziki Kanbokoek, osasun babes neurriak zorrozki segitu baitituzte, distantzia neurriak errespetaraziz, eta prest agertzen baitira osasun neurri horiek beren bezero eta langileentzat beharrez azkartzera,

Kanboko herri hautetsiek Frantziako Lehen Ministroari eta bere gobernuari eskatzen diote herriko hurbileko saltokien irekitzea lehenbailehen baimentzea, zehaztekoak diren baldintzetan.

Aho batez onartua.

Auzapezaren erabakien komunikazioa (Auzapezak aurkeztua).

Auzapezak Herri Biltzarkideei azaldu dizkie, azalpen ohar sintetikoan agertzen diren, bere eskuordetzaren esparruan hartu dituen erabakien berri.

Solasgai guztiak landurik, saioa 13:10ean bukatu da.